

C1 AHOZKO BITARTEKOTZA

Zure ondoko ikaskidea ehizaren inguruko gorabeheretan interesatua dabil aspaldi honetan. Izan ere, ekologista da, baina gai horren inguruan ez du iritzi argirik, asko baitira aldeko eta kontrako argudioak. Zuk gaur beherago datorren artikulua irakurri duzu, eta ikaskideari haren berri ematea erabaki duzu. Hortaz, kontatu ikaskideari artikulua dakarrena.

Prestaketa: 10 minutu

Azalpena: 3-4 minutu

INGURUNE NATURALA: Ehiza: ekologistak kontra, baserritarrak alde.

MILAKA ESKOPETA ETA MILAKA BIKTIMA

Nafarroan badira 20.000-25.000 ehiza-baimen, Nafarroako Ehiza Federazioak emandako datuen arabera. Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, berriz, 15.400 daude, 2017ko datuak kontuan hartuta.

Eskopeta horien bidez, ehiztariek hamaika espezieetako milaka eta milaka animalia hiltzen dituzte urtean. Pirinioetako hainbat herritan, sareak erabiltzen dituzte iparraldeko herrietatik hegoalderanzko migrazioan mendilerro hori zeharkatzen duten usoak harrapatzeko. Etxalarren, adibidez, azaroaren 20an bukatutzat eman zuten sasoiaren, 818 uso hil dituzte. Hala ere, gehiago dira urtean Nafarroan ehiztariek akabatzen dituzten basurdeak: 9.000 inguru. Estatistiketatik kanpo gelditzen dira ehiztariek zaurituta utzitako gizakiz besteko animaliak. Ehiztarien legezko jarduerari buruzko datuei, gainera, isileko ehiztariena erantsi behar zaie, eta errealitate horri buruzko informazioa, askotan, urria da. Ehiza-barrutietan gertatzen diren pozoitze-kasuak dira horren adibiderik argiena: pozoiak jotako animalia guztiak ez dira aurkitzen; uste da bakarrik %10 agertzen direla.

Halako gertaerek zalantzan jartzen dituzte ehiztariek beren jarduera defendatzeko erabiltzen ohi dituzten argudioak: horietan ohikoena da ustez ehizak ekosistemen orekan betetzen duen ezinbesteko funtzioa. Horixe nabarmendu du Nafarroako Ehiza Federazioko presidente Jose Angel Remirezek. Haren hitzetan, ehiza jarduera selektiboa da, eta “hiltzeko zorian diren animalia zaharrak” akabatzen dituzte solik.

Ekosistemen gainetik, sentitzeko gai diren norbanakoen aurkako jarduera bat da ehiza. Eta hori da Animalien Askapenerako Fronteak (AAF) bere sabotajeen erdigunean jarri nahi izan duena. “Ez dugu beste aldera begiratuko, sentitzeko gai diren beste animaliak hiltzen dituzten bitartean beste espezie batekoak izateagatik”, esan dute.

Nor kolektibo antiespezistako bozeramaile Maialen Saguesek, bere aldetik, ehizak hiltzen dituen norbanakoen oinarrizko interesak jarri ditu jarduera horren inguruko eztabaidaren erdigunean. “Batzuek animalien ongizatea dugu helburu, eta norbanako horien oinarrizko interesak errespetatzen ditugu; besteek, berriz, zaletasun bat eskubide gisa aldarrikatzen dute. Norbanakoaren desirak ez dira eskubideak, eta desira horiek bete nahi izateak ez du inoren zapalkuntza justifikatzen”, esan du.

AURREAN, BASERRITARRAK.

Baserritarrak, nonbait, ez dira iritzi berekoak. Adibidez, ez zuen arrazoi faltarik larre behiak alboan utzi eta basurdeak gizentzen hasi beharko dugula zioen baserritarrak; are gehiago, basurde populazioa ugaltzen doan bezala ikusita. Basurde eta orkatzen ugalketak sekulako kalteak eragiten ditu baserrietan nahiz belardi nahiz baso edo fruitu landareetan, eta oso ugariak dira goitik behera «goldetutako» belardiak eta enborra zuritutako landare eta zuhaixkak. Beraz, pentsa dezakegun bezala, baserritarrak kokoteraino daude, eguna joan eguna etorri, belardiak bere onera itzultzen eta zuhaixkak birlandatzen.

Kalte nabarmenak belardi eta landareetan sumatzen badituzte ere, ezin dugu ahaztu egunean zehar kilometro asko korritzen dituzten basapiztien abere aziendarako sekulako arriskua dakartela, gune batetik bestera abere gaitzen transmisioa erraztu eta biderkatu egiten dutelako eta, horrenbestez, erakunde eta sektore arteko elkarlanean hainbeste urteetan landutako abere osasun egoera bikaina pikutara bidaltzeko arriskua areagotu egiten delako.

Horregatik, baserritarrek diote behar-beharrezkoa dutela ehiza, basapiztien demasia kontrolatu nahi bada behintzat. “Jakitun gara –diote– abereen eskubideak gizakiaren eskubideen pareko jarri nahi duen jende asko dugula egungo gizartean eta, ondorioz, onartezintzat jotzen duela ehizaren praktika. Guk, baserritarrok, abereak maite ditugunez, zaindu egiten ditugu eta osasuntsu gobernatzeko. Gure eguneroko jardunean txakurren laguntzaz egiten dugu lana eta, horrenbestez, gure etxeak bezala tratatzen ditugu, baina, hala ere, argi dugu abereak ez direla gizakiaren pareko, ez eta bere eskubideak eta, are gutxiago, kalte besterik egiten ez duten basapiztiak”.

nor.eus./Berria. (moldatuak)